

noaua

**Eusko Legebiltzarrerako
hauteskundeetan, EHBildu
nagusitu zen Usurbilen**

**Kanpandorrera itzuli aurretik,
Elizako erloju historikoa
Sutegin ipini dute ikusgai**

**Antzezlanak eta kontzertuak
asteburu honetako
Kultur Biran**



**Goizetik arratsaldera, herri kirolei
eskainitako eguna izango da igandekoa**



NOAÓA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:
09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaóa.eus

ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua
urte osoan zehar

Begiraleekin antolatutako
jarduerak.

Usurbilgo Txokoalde
auzotik Orioraino,
2,5 orduko jaitsiera
kaiakean.



657 794 677

www.begi-bistan.com
info@begi-bistan.com



ZERBITZU BERRIAK!

ORAIN ASTEBURUETAN...
EGUNEAN ZEHAR **TABERNA IREKIA!**
ZATOZ GURE TERRAZARA!

*Olarrondo
jatetxea*

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDE **GAUETAN
JATETXEA IREKIKO DUGU!**
AFAL EZAZU GURE TERRAZAN EDO JANGELAN
ALDEZ AURRETIK ERRESERBA EZAZU!

ASTEBURUKO MENUA
25€ (eguerdi eta gauetan ere!)



USURBIL 943 360 376
626 686 036 www.olarrondojatetxea.com

Albisteak iruditan

Erosketa-orga opari, Usurbilen bizi eta erostearen truke

Usurbilen bizi eta erosteak dituen onurak anitzak dira, bizi berri izan dugun konfinamendu garaian are ageriagoan geratu direnak. Eta horretan jarraituzera, herrian bizi eta kontsumitzera gonbidatzen gaitu Hurbilago Usurbilgo merkataria eta ostalarien elkarteak. Kanpaina berri bat abiarazi dute; herrian bizi eta beharrezkoa dugun hori herriko saltokietan eskuratzea sustatzeko.

Opari ederrekin gainera; albiste honi atxikitako Hurbilagoren argazkia duzue horren lekuko zuzena. Herriko merkataria hainbat ageri dira, erosketa-orga banarekin. Orga hauek zuenak izango dira laster; merkataria eta ostalarien elkarteko kide diren denda bakoitzak bat zozketatuko du, uztailaren 24ra arte erosketak egiten dituztenen artean. Erosketak egi-



Orga hauek zuenak izan daitezke. Hurbilago merkataria eta ostalarien elkarteko kide bakoitzak bat zozketatuko du, uztailaren 24ra arte erosketak bertan egiten dituztenen artean.

terakoan, dendariak emandako txartel bat bete beharko da datu pertsonalekin eta dendan utzi beharko da. Zozketara arte itxaron beharko da gero.

Oparituko dituzten erosketa karroen erabiltzaileek lau haizeetara zabalduko dute kanpaina honen lelo eta mamia; "Usurbilen bizi, Usurbilen erosi", aldarria.

Laburrean

Opor aurreko azken NOAUA!, uztailaren 24an

Uztailaren 24ko NOAUA! plazaratu eta gero, udako oporrak hartuko ditugu. 833. astekarirako ohar edo zorion agurrik baduzue erredakzioa@noaua.eus helbidera helarazi, hilaren 20a baino lehen.

Operarioen lan poltsa osatzeko deialdia

Ekainaren 26az geroztik izen emateko 15 laneguneko epea zabaldu du Udalak uztailaren 17ra arte. Eskaera orriak Udalaren usurbil.eus atarian eskura daitezke.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordintzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presook
Usurbilgo Udala
Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Zinemaz maitemindua

Ennio Morricone konpositore ezaguna hil da, 91 urterekin. Zinemagintzak izan duen musika sortzailerik handienetarikoa bat zalantzarik gabe. Gutun bat idatzi zuen hil aurretik eta bere abokatuari utzi zion irakur zezan mundu hau uzten zuenean. Honela dio: "ni, Ennio Morricone, hil naiz". Inor molestatu gabe eta diskrezio osoz joan zen San Fermin bezperan. Hileta ere etxekoan artean egitea nahi izan zuen.

Bere biografia azaltzerakoan honako datu hauek aurreratuko nituzke: Erroman jaio zen 1928an. Bere aita tronpeta jotzailea zen eta beraz, etxean bazuen musikaren tradizioa eta 9 urterekin hasi zen piezatxo batzuk konposatzen. Bere musika ikasketak Alessandrini musikariaren gidaritzapean egin zituen. Maisu honekin landu zituen konposizioa, tronpeta eta koro-kanta. Maria Traviarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. 60 urtez bizi izan ziren elkarrekin. Beti esaten zuen emazteari ez ziola eskaini behar hainbat

denbora, lanez gainezka egon zelako beti. Ikasketak amaitu ondoren sos batzuk irabazteko jazz klubetan lan egin zuen, piezatxo batzuk ere konposatu zituen irratirako. Duela gutxi etxe istripu batean femurra hautsi zuen eta ordutik ospitaleratuta zegoen.

Konpositore bezala batez ere soinu bandek bihurtu zuten hain ospetsua. 500 bat baditu guztira. Gehien gustatzen zaizkidanak bi hauek dira: "The mission" eta "Cinema paradiso"-renak. Hain zuzen ere "Cinema paradiso"ren *Love theme* lantzen ari nintzen pianoan bere heriotzaren berri jaso nuenean. Atzo gauean eman zuten pelikula hori telebistan Morriconeren omenez. Egia esan musika aparta du, baina filma astun samarra egin zitzaidan une batzuetan. Niretzat soinu banda guztien artean ederrera "The mission"-ena da. Ehunka eta ehunka aldiz jot dut organoan nahiz pianoan "Aita Gabrielen oboea" banda horretako zatia: ezkontzetan, hiletetan, lagunartean emandako kontzertuetan... Hain da hunkigarria eta halako mezua transmititzen du! Lagun

batek baino gehiagok eskatu dit: "Luis, nire hiletan Aita Gabrielen oboea jo mesedez". Gure ikastolako DBHko bigarren urteko neskato eta mutikoentzat botatzen nuen "The mission" filma. Historia ezaguna da: Aita Gabriel jesuita Iguazu ur jauzien inguruan dagoen guaraniar tribuetara igotzen da kristau fedea zabaltzeko asmoz. Ordu arte misiolari guztiak akabatzen zituzten ur jauzietatik behera botata, esklabo tratantetzat hartzen baitzituzten. Gabriel bakar bakarrik iristen da gora, esertzen da basoan harkaitz koskor baten gainean, ateratzen du zorroan zeraman oboea eta hasten da jotzen denok ezagutzen dugun melodia paregabe hori. Guaraniarrek, armez josituta, inguratzen dute fraidea hiltzeko asmoz. Baina, musika hori entzuten dutenean konturatzeko dira tipo hori anaitasun sentimenduz beteta datorrela, ez duela beraietaz aprobe txatu nahi, konpartitu baizik. Onartzen dute beraien artean eta sekulako lanak egiten dituzten tribukoak defendatzeko portugalдар eta espainiar esklabo tratanteengandik.

Musika estilo berezia zuen: bere betiko erronka izan zen musika berria sortzea eta aldi berean herrikoia izatea. Biak uztartzen ez da erraza, baina Morriconek lortu zuen. "Konposatzen dudanean beti sentitzen dut ardura handi bat: zerbait guztiz originala probatu nahi izaten dut eta era berean, ulertua izango dena", esaten zuen. Bere konposizioetan erabiltzen ditu txistua, tiroak, animalien eta txorien hotsak, zartadak... Bere egiten zituen konpositore baten hitzak: "musika orok joan behar du berrikuntza baten bila".

Sari asko irabazi zituen bere bizitzan, besteak beste bi Oscar, sei Bafta, hiru Urrezko Globo eta abar. 70 milioi disko ere saldu zituen.

Erreakzio franko izan da bere heriotzaren ondoren. Laurentis zinemako produktorearen hitzekin gelditzen naiz: "Morriconeren musika gai izan da denok biltzeko maitasun besarkada batean". Ziur aski zeruan ere partitura dotoreren batzuk konposatu dituzte zerutar orkestrek eta koruek interpreta ditzaten.

Aritz Gorriti

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Ika-mika

Prekarietatea eta pobrezia desagerraraztea, gure lehentasuna

Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera (BGD-IMV) Gizarte Segurantzaren sartu da. Pobrezia larriko egoerak gainditzeko, pertsonen gutxieneko diru-sarrerak ematea ahalbidetuko duen aberastasuna birbanatzeko estrategia, positiboa dela uste dugu.

EAEn, antzeko prestazio bat, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE-RGI) aspalditik

ezarrita dago 1999ko maiatzaren 21eko greba orokorraren ondorioz.

Gaur arteko DSBE (RGI) prestazioa EAEn. Eusko Jaurlaritzaren eskumena:

- Pertsona bakar batentzako: 693,73 euro.

- Pentsiodunak: 795,95 euro.

Hemendik aurrerako DSBE (RGI) prestazioa EAEn. Eusko Jaurlaritzaren eskumena:

Pertsona bakar batentzako			Pentsiodunak
(BGD-IMV) Gizarte Segurantzak	Eusko Jaurlaritzak	Aldea Eusko Jaurlaritzaren alde	
462 euro	231'73 euro	462 euro	795'95 euro
693'73 euro			

Eusko Jaurlaritzak zertara bideratuko du aurreztuko duen alde hori?

Eusko Jaurlaritzak ez du aurrezpenaz hitz egin nahi, oraindik zenbatzeke dagoen diru hori beste gastu sozial batzuetara bideratuko dutela adierazi baitute.

Pentsiodunok uste dugu diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen pobrezia-egoerak arintzeko eta pentsio baxuenak 1080 eurora arte osatzeko erabili behar dela.

Orkatz

Udajolas, talde txikietan baina gogotsu

Abian dira NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak prestaturiko udalekuak. Bizi dugun osasun krisialdira egokituriko Udajolas aurten. Sakabanaturiko talde txikietan biziko dute ekimean izan emanda duten 4-12 urte arteko 140 haur eta gaztetxok, uztailaren 30era arteko dinamika.

Bakoitzak bere txokoa du Kaxkoan goizean bildu, eguneko ekintzak burutu eta etxeratzeko. Asteroko irteerak aurten, Usurbildik atera gabe. Protokolo zehatz bat landu du antolakuntzak hainbat prebentzio neurriekin, eta covid19 kasurik diagnostikatuko balitz, nola jokatu jakiteko, Eusko Jaurlaritzak eremu hau kudeatzeko



Protokolo zehatz bat landu du antolakuntzak, hainbat prebentzio neurriekin.

ekimean argitaraturiko dekretua abiapuntutzat hartuta.

Gai honi buruzko argibideak gurasoei eskaini zizkien antolakuntzak joan den hilan, Sutegin eginiko bilertan. Momentuz ezohiko "normaltasun" honetan abiatu da

Udajolas, primeran pasatzeko gogo handiz, uztailaren 30era arte.

Informazio gehiagorako:

688 807 336

udajolas2020@gmail.com

noaua.eus/bereziak/udajolas

KzGunea zabalik, baina hitzordua eskatu behar da

Alarma egoera indarrean jarri zenetik itxita egon da lau hilabeteotan Usurbilgo KzGunea. Hilabete hasieran zabaldu zuten, baina hainbat udal zerbitzuren kasuan bezala, osasun krisialdi honetara egokitu dute irekiera. Bertara joan aurretik hitzordua eskatu beharra dago, 945 016 100 telefono zenbakian. Usurbilgo Udalak berri eman duenez, dei horretan "kudeaketa zentro orokorreko langileek jakinaraziko dizkiete irizpideak erabiltzaileei".

Ezinbestekoa izango da maskara jantzita izatea, "eta

denbora muga izango dute, zerbitzuaren arabera", Udalak zehaztu duenez. Nabigatzeko 20 minutu eta tutoretza zerbitzuak 30 minutukoak izango dira. "Dokumenturen bat sinatu beharko balu erabiltzailearen batek, bere boligrafo propioa eraman beharko du etxetik. Tramitazioak (BakQ, Metaposta), aurrez aurreko tutoretzak, nabigazioa eta informazio orokorra (IT Txartela, Lanbide, Alokabide...) kontsultatzeko aukera izango da", Udalak ohartarazi duenez. Hilabete honetan 9:00-13:00 artean irekiko dute.

Zuzeneko saioak Youtuben

Uztailean zehar, Youtube KzGuneaTIC bidez zuzeneko saioak eskainiko dituzte, goizez zein arratsalde:

■ Uztailak 16, 18:00-19:00: Zure ordenagailua biruz eta bestelako mehatxuetatik babestu.

■ Uztailak 21, 18:00-19:00: Eza-gutu Streaming plataformak.

■ Uztailak 23, 11:00-12:00: Android sekreturik gabe.

■ Uztailak 28, 11:00-12:00: Azken gailu teknologikoak ezagutu.

■ Uztailak 30, 18:00-19:00: Murgildu errealitate birtual eta areagotuan.

Andatzako indusketetan parte hartzeko aukera

Andatzan hasiak dituzten arkeologia lanei segida emango die uda honetan Aranzadi zientzia elkar-teak. "Oraingoan, Irigain inguruan 2005. urtean topatu ziren erromatar garaiko aztarnategian sakonduko dute, uztailaren 6tik 17ra bitartean", Usurbilgo Udaketik berri eman dutenez. Lanotan parte hartzeko aukera izango da. Interesdunek iquevedo@aranzadi.eus helbidera idaztea eskatu dute.

Furgobaratza bueltan da

Uztailaren 20an, 18:00-19:30 artean, Agerreazpiko Udal Baratze Parkera bueltan dator Furgobaratza. "Furgobaratzaren bidez, Kutxa Ekoguneak lursailtarako aholku teknikoak eskuratzeko eta landare eta plantel ekologikoa erosteko aukera eskaintzen du. Eta uztaileko bisitan, baratzea urreztatzeko aholkuak ere zabalduko ditugu". Doan, herri-tar ororentzat.

Informazio gehiago:

ekogunea.eus

ekogunea@ekogunea.eus



Uztailaren 20an Agerreazpin izango da Furgobaratza.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Mikel Laboa plaza eta Artzabal lotuko duen oinezko bidearen lanen hasiera

Bi guneok (frontoi atzealdea eta Artzabalgo parkea) lotzen dituen bidea oinezkoentzat egokitzeko lanak astearte honetan hastekoak ziztuen Sasoi Eraikuntzak enpresak. Lau hilabete iraungo dutela aurreikusia du Udalak. “Obra osoaren kostua 161.744,95 eurokoa da, eta ia erdia (%46,96, hau da, 75.950,86 euro) aurretuko du udalak, irisgarritasuna hobetzeagatik Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza bat lortu baitu”, Udalak berri eman duenez.

Lanen eremua bitan zatitu du Sasoi enpresak. Batetik, Artzabalgo parke sarreratik Kontzeju Zarra eta Zubiaurrenea kaleek bat egiten duten guneko zebra biderako eremua legoke. Tarte honetan, oinezkoei lehentasuna emateko lanak bideratuko dituzte. “Horretarako, Borda Berri kaletik behera doan kaleko espaloia,



Oinezko bidea osatzeko lanek lau hilabete iraungo dutela aurreikusia du Udalak.

ERAGOZPENAK

Lanek eragozpenak eragin ditzakete baina hasiera batean ez da kalerik itxiko

Zubiaurrenekoa eta Artzabalgo parke sarrerakoa batu egingo dituzte, modu horretara, parkeari presentzia handiagoa emateko. Zubiaurrenea kalea, orain arte, bi norabidekoa izan da, eta, aldaketekin, norabide bakarrekoa bihurtuko da (Borda Berri kaletik Zubiaurrenera

eta handik gora joateko), eta, horrez gain, espaloia handitu eta eserlekuak eta zuhaitzak jarriko dituzte”.

Beste eremuan, Zubiaurreneatik Kontzeju Zarra kalean gora Mikel Laboa plazaraino egingo dituzten lanen xedea “oinezkoen konexioa txunkuntzea da. Hala, berrituta, Mikel Laboa plaza Askatasuna plaza aldera hedatuko da: ibilgailuek jada, ez dute Mikel Laboa plazaren serreran aparkatzeko aukerarik izango, dena maila

berean berdinduta geldituko baita, galtzada-harri mota berarekin, eta hor ere zuhaitzak eta eserlekuak jarriko dituzte. Askatasuna plaza aldeko espaloian, lehorrean leundutako hormigoia botako dute, eta parkeoan, berriz, baldosa hidraulikoa jarriko dute”.

Lanok eragozpenak eragin ditzakeela ohartarazi du Udalak, baina hasiera batean ez da kalerik itxiko; “aurrerago bai, baina orduan jakinaraziko dute”, ohartarazi du Udalak.

Oria ibaiaren higadura egonkortzeko lanak Txokoalden



Lanok ez dute ibilgailuen joan-etorria baldintzatuko.

Aste hasieran abiatzekoak ziztuen lanok URA agentziak erria zeharkatzen duen zubia- ren bueltan. “Bioingeniaritza lanak egingo dituzte, hau da, egurrezko zutabe batzuk sartuko dituzte lurrian, higadurari

aurre egin eta ibaiertza natural egonkortzeko erabili ohi dena”, berri eman du Udalak.

Ibilgailuentzat arazorik ez

Lanok ibilgailuen joan etorria ez du baldintzatuko.

Etxealdiako zubia lau astez itxiko dute



Uztailearen 20tik aurrera lau astez itxita egongo da zubia.

Zubiaren egitura eta zoladura konponduko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Uztailearen 6an hasitako lanek sei aste iraungo dute; lehen bietan zabalik izango da, “trabaren batekin ziur aski, eskilarak edo aldapa

konpondu bitartean, bata edo bestea erabili beharko dute”. Gainerako lauetan itxita, Udalak ohartarazi duenez. Aspaldiko eskaera gauzatze bidean da Foru Aldundia. Egitura eta zoladura konponduko dituzte.

Fiskaltzak delitutzat jo du Arkaitzerrekako isurketa

Ehunka arrain hilda agertu ziren maiatzaren 9an Erraustegi ondotik igarotzen den Zubietako Arkaitzerrekako. GHK-k hasieran erraustegiak zerikusirik izan zuenik ukatu arren, egun gutxira jakin ahal izan zen eremu hartatik izandako amoniako isuri batek eragin zuela hondamendia.

Anerreka Ingurumen Elkar-teak, Zubietako Lantzen Ingurumen Elkar-teak eta Eguzki Euskal Herriko talde ekologista eta antinuklearrak gertaturikoa Gipuzkoako Ingurumen Fiskaltzan salatu zuten. "Orain, hiru elkarte hauek beraien burua herri-akusazio gisa aurkezteko aukera aztertzen ari dira", berri eman dute.

Fiskaltzak Arkaitzerrekako isurketa "ingurumenaren aurkako ustezko delitu bat dela uste du" eta "egin dituen ikerketa-diligentziak Donostiako 5. Instrukzio Epaitegira bidali ditu, berau baita kasuaren ardura duena".

Anerrekak, Eguzkik eta Zubietako Lantzenek ohartarazi dutenez, "Zigor Kodearen 325. artikulua berariaz jasotzen ditu, ingurumenaren aurkako delituen artean, uren kalitateari edo animaliei edo landareei funtsezko kalteak edo kalte nabarmenak eragiten dizkieten edo eragin diezazkieketen legez kanpoko isuriak. Arkaitzerreka zeharo erreta geratu zen. Argien kaltetutako arrain-espezietako bat aingira izan



Fiskaltzak Arkaitzerrekako isurketa "ingurumenaren aurkako ustezko delitu bat dela uste du".

INSTRUKZIO EPAITEGIAN

"Fiskaltzak egin dituen ikerketa-diligentziak Donostiako 5. Instrukzio Epaitegira bidali ditu"

zen. Aingira suspertzeko plan bat dago, Europar Batasunak sustatuta, hain justu, espeziea gainbeheran dagoelako".

Ukatzetik ardura enpresei egoztera

Arkaitzerrekako isurketa bertako bizilagunek salatu zuten, bestela ezer ez genuela jakingo diote aipatu ingurumen eragileek. "Salaketa publikorik gabe, ez litzateke inortxo ere enteratuko. Eta beharbada horixe gertatu da aurretik gertatutako isuri batzuekin. Beste isuri horien inguruko susmoak GHK-k berak hauspotu zituen, despistatuta edo, hasieran zabaldu zuen "ukaziozko" oha-

rean", salatu dute.

Gogoan izan, Arkaitzerrekako isuriak erraustegiarekin zerikusirik zuenik ukatu zuen hasieran GHK-k. Gerora bai, eremu hartatik isuritako amoniakoa izan zela eragilea, eta enpresei egotzi zien maiatza hasieran jazotakoaren ardura. "Izan ere, kontratuaren hiru arau-hauste larri leporatzen dizkiote: isurketaren berri ez ematea, isurketa ahalbidetu zuen kubetaren jatorrizko diseinua aldatu izana ez komunikatzea eta pH-metroak funtzionatzen ote zuen ez egiaztatzea. Honek ez du zerikusirik, noski, saldu nahi izan diguten erraustegi makulagabearen ereduarekin, non emisio kutsagarriak, airezkoak zein uretaratakoak, guztiz kontrol publikoan omen dauden. Ez da hain kontrol zorrotza izango baldin eta hori guztia, isurketa bera barne, oharkabean pasatu bazaie".

NOAUA!ko bazkideei oharra

NOAUA!ren 2020ko kuotaren kobraketa uztailearen 20an hasiko da. "Aurtengoan ere, 40 euro kobratuko zaizkizue eta datorren urteko errenta aitortuenerako hobaria jasoko duzue", Kultur Elkartetik bazkideei igorri zaien gutunean jasota datorrenez.

Banku bidez kobratzea egiteko baimena eman dutenei, modu horretan egingo zaie kobraketa. "Ordainketa eskuz egiten duzuenok aldiz, gure kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri. Kontu zenbakia: ES03 3008 0259 11 3086496928 (Rural Kutxa)".

Elkarteko ateak zabalik

NOAUA!ko zuzendaritzan norbaitek parte hartu nahiko balu, edo martxoan eginiko Batzar Orokorrean onartutako dokumentazioa eskuratu nahiko balu, "gurekin harremanetan jarri eta argibide guztiak emango dizkizugu".

Bazkideen ekarpen

ekonomikoa ezinbestekoa da Birusak birus, eta zailtasunak zailtasun, aldizkaria astero banatu dugu etxe guztietan. Web orrian ere, ahalegin bikoitza egin dugu eta ez da alperrikakoa izan, bisita kopurua modu nabarmenean igo baita.

Beste jardueretan ere NOAUA! ez da geldi egon. "Udajolas martxan jarri ahal izan dugu". Amaitzeko, "bazkideok egin duzuen ekarpena eskertu nahi dugu. Aurrera jarraitzeko ezinbestekoa zai-gulako".

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



Kima

MASAJE LEKUA



·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Kanpandorrera itzuli aurretik, Elizako erloju historikoa ezagutzeko aukera Sutegin

Ehun urtetik gora, eguneko ze garaitan garen oroitzen digun Salvatore elizako erlojua barrutik ezagutzeko aukera dugu egunotan Sutegi erakusketa aretoan. Zaindu beharreko herri ondarearen parte dugu. Igan-dera arte, uztailaren 19ra arte ikusgai izango duzue kultur etxean, 18:00-20:00 artean.

Erlojua bera, bere historia, non eta nork egin zuen... ikusi eta ikasteko aukera izango duzue antolatzaileek jarri dituzten ikus-entzunezkoarekin eta panelekin. Ordulari historikoa, Aginagan egin zuen tradizio luzeko erlojugileen familia bateko kide batek. Azken urteotan, Usurbilgo “ErlojERUAK” lagun taldeak zenbait eragilerekin elkarlanean eta Udalarekin sinaturiko lankidetzaz hitzarmenaren baitan zaharberritze lanetan izan du. Lanak amaitu dituzte; prozesu honen emaitza da hain zuzen, egunotan Sutegin ikus dezakezuen. Eta laster jatorrizko gunean kokatuko dute; erakusketa itxi ostean, erlojua dagokion gunera itzuliko baitute, Salvatore Elizako kanpandorrera. Berrituta, mende luze honetako lan isila egiten segitzeko.

“Patsadaz aritu gara, lasai”, zioten “ErlojERUAK” taldeko



Duela lau urte hasi zituzten zaharberritze-lanak. Erlojua elizako kanpandorretik kontu handiz jaitsi, garbitu eta piezaz pieza desmuntatu zuten, “hurrenkera zehatz batean”.

ALKATEA

“Herriko ondarea zaindu, berreskuratu eta balorean jartzea da udal honen xede nagusietako bat”

kideek erakusketaren irekiera ekitaldian. Erlojua elizako kanpandorretik kontu handiz jaitsi, garbitu edota piezaz pieza desmuntatzen, “hurrenkera zehatz batean”. Duela lau urte hasi zituzten lanok.

Bidaia honetan bidelagun izan dituztenak eskertu zituz-

ten erakusketaren irekieran; “ErlojERUAK” lagun taldeko kideak, Udala, Eliza, Yereguitar Elkartekoak, Lanbide Eskolakoak... 2017an erlojua berritzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Udalarekin eta hainbat eragilerekin. “Herriko ondarea zaindu, berreskuratu eta balorean jartzea da udal honen xede nagusietako bat”, alkate Agurtzane Solaberrieta-aren esanetan. “Gure historian arakatzea, herri honek arlo ugaritan egindako ibilbidea ezagutzeko, gaur garen honeta-

ra nola iritsi garen jakin ahal izateko”.

Egitasmo hau norabide horretan kokatzen zuen alkateak; “kultur ondarearen sorburuetan arakatu, gure aurreko belaunaldiak izen abizenez ezagutu, euren langintzaren berri izan eta horren berri ematea, ondorengo belaunaldiok ezagutu eta balioan jarri dezagun”. Elkarlanean. “Elkarlan, lankidetzaz eta auzolanik gabe nekez eraiki baitaiteke komunitatea”, Solaberrieta-aren esanetan.

“Harribitxi bat da, balio handikoa”

Usurbilgo kultur ondarean, erlojua ezin “tokikoagoa” dugu. “Harribitxi bat da, balio handikoa”, Agurtzane Solaberrieta alkatearen esanetan. Aginagako Ezpaldi Berriko sutegian eraiki zuen tradizio luzeko erlojugileen familiako kidea Benito Yere-

gui Golarazanak.

Langintza horretan segi dute Yereguitarrek belaunaldiz belaunaldi. Familiako kide Xabier Yereguik Sutegiko erakusketaren irekieran oroitarazi zuenez, “1872an ezkondu zen gure birraitona eta birramona Martina Manterola. Aginagako Ezpaldi

Berrin finkatu ziren sutegia zegoelako. 13 seme-alaba izan zituzten”.

80. erlojua

Gogoan hartu beharreko zenbaki bat, Benitoren 80. erlojua izan zen Salvatore elizako kanpandorrekoa. Berarentzat azkena.

Hura egin, muntatu eta hilabete gutxira zendu zen. Baina bere hurrengo belaunaldiek erlojuak sortzen segi zuten; eta bai, eraiki zuten hurrengo, familia barruko tradizioaren jarraikortasunaren adierazle nagusi gisa, 81. erloju gisa izendatu zuten.

“Joxan Artzek bere poesiaren errimak erlojuaren tik-tak hotsekin markatzen omen zituen”

Bitxikeria edo pasadizo bat baino gehiago ditu 100 urtetik gorako erlojuak. Ondare material hutsetik haratagokoa izan zela agerian uzten duena. “Joxan Artzek bere poesiaren errimak erlojuaren tik-tak hotsekin markatzen omen zituen”, Yereguik azaldu zuenez. Erlojua sorkuntzarako, bai gu eta gure arbasoak zer ordutan bizi ziren jakiteko, eta zaintzarako ere baliatzen omen zuten.

Familiako historia biltzeko lanetan zirela Orreagara joan eta hango apaizak argitu zien, zergatik jartzen zituzten erlojuak auzo edota herrietako elizako kanpandorreetan; zaintzarako. “Gure gaixoak nola zaindu” zehazten zuten erlojuok; gaixotuz gero, medikuak agindutako sendagaiak zenbatero, zer ordutan hartu jakiteko.

Arbasoengandik datorren teknologia hura aldarrikatu zuten



Erlojua gertutik ikusteko aukera duzue egunotan Sutegin.

GIZARTE ONDAREA

Ibon Alberdi apaizak gogoan hartu zituen “ondare hau 100 urteotan honaino ekarri dutenak”

Yereguik erakusketaren aurkezpenean; burdinarena. Laster, Sutegitik jatorrizko lekura itzuliko da Usurbilgo elizako erlojua. “Baina jarri dezagun bere lekuan. Behin esaldi bat irakurri nuen liburuxka batean. Le-

kuari dagozkionak bakarrik ez, lekua osatzen dutenak dira gauzak. Gauzek bere lekua osatzen dute”.

Ildo beretik, proiektu honen garrantzia nabarmendu zuen Ibon Alberdi Salvatore Parrokiako apaizak. “Konturatu behar gara ez dugula bakarrik ondare materiala, baita pertsonala ere”, gogorarazi zuen. Erlojua zaharberritzeko egitasmoan bideratu den lanketa jarri zuen adibide gisa. “Hori

ere gizarte ondarea da. Ez dezagula galdu”, galdegin zuen, gainerako kideek egin bezala, proiektu honen bueltan egondako elkarlana goraiatu eta eskertzearekin batera. Gogoan hartu zituen, “ondare hau 100 urteotan honaino ekarri dutenak”. Zaharberitze lanetan parte hartu dutenak orain, edota iraganean, erlojuak egoki funtzionatzeko “pesa horiek igotzen zituztenak; Aranburutarrak, Joxe Mari Izagirre...”

Alkateak gogorarazi zuen moduan, egun Sutegin dagoen erlojuaren ibileren azken kronika, jatorrizko lekura, elizako kanpandorrera itzultzean idatziko da, laster. Garai berrietara egokituta, automatikoki funtzionatuko du. Bere xarma galdu gabe; Sutegira joateaz gain, jatorrizko kokagunean bertatik bertara ikusi nahi duzuenok, badirudi horretarako aukera izango dela etorkizuneari. Bisita gidatuak antolatzeko asmotan dira.

Musika Hamabostaldiko bi kontzertu Salvatore Elizan

Urtero moduan *Organo Zikloa* antolatu du Donostiako 81. Musika Hamabostaldiak abuzturako. Eta ziklo honen baitan, besteak beste, Usurbilen kontzertu bat ospatu ohi da. Aurten ordea, baten faltan bi iragarri dituzte. Bizi dugun osasun krisialdira egokituriko bi hitzorduotarako gonbidapenak eskuragarri jarri ditu antolakuntzak.

Donostiako 81. Musika Hamabostaldian, *Organo Zikloa*-ren baitan, 13 kontzertu iragarri dira aurtengo edizioan. Guztiak doakoak. Tartean, bi kontzertu Usurbilen; abuztuaren 2an eta 9an. “Kontzertu hauetara joan ahal izateko, ezinbeste-

koa izango da alde zuzenetik gonbidapena jasotzea”, ohar-tarazi dute antolatzaileek. Gonbidapenak eskuragarri dituzue jada.

Aforoa mugatua

Gogoan izan, bizi dugun osasun krisialdira egokituriko Salvatore Elizako kontzertuak izango dira; aforoa mugatua izango da. Emalndiotara joateko neurriok bete beharko dira:

-Musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da Hamabostaldiko kontzertu eta ikuskizun guztietan.

-Kontzertu edo ikuskizunetara behar besteko aurrerapenarekin joatea gomendatzen da.

-Aretoko arduradunen zehaz-

tasunak jarraitu beharko dira: haiek gomendatu eta adierazitako ibilbideak, distantziak, aretotik ateratzeko oharrak...

-Aretotik ateratzeko baino ezin izango da eserlekutik mugitu.

-Neurri hauek aldaketak jasan ditzakete.

Organo zikloa

Abuztuak 2, igandea

■ 20:00 Loreto Fernandez Imaz organo jolearen eta Ainhua Zubillaga mezzosopranoaren emalndia Salvatore Elizan. “Couperin, Fauré, Messiaen, Guridi, Sorozabal eta abarren obra”.

Abuztuak 9, igandea

■ 20:00 Pablo Mezzelani (instrumentu multietnikoak), Pedro

Aguinaga (biolina) eta Loreto Aramendi (organoa) hirukotearen emanaldia. “Franck, Duruflé, Liszt eta “Vientos y Piedras” (Armenia, Bolivia, Afganistan, Argentina, Txina, eta beste hainbat lekutako pieza tradizionalak)”.

Gonbidapenak Musika Hamabostaldiaren bulegoetan (Zurriola Hiribidea 1, astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30) eskuragarri edo 943 003 170 telefono zenbakian. Aforoa mugatua.

Informazio gehiago:

www.quincenamusal.eus
Antolatzailea: Donostiako 81. Musika Hamabostaldia.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Bikoteen hartuemanen zaintza, Sexu Aholkularitza zerbitzuaren arreta gunea

Konfinamendua garai zaila izan da askorentzat, zailtasunak balia daitezke gure bikote harremana indartzeko, baina baliteke ere, itxialdi horretatik, gure harremana ahulduta ateratzea. Harremana berpizteko eskura duzu Sexu Aholkularitza Gunea". Hortxe etxealdi garai luzearen osteko udal zerbitzuaren gonbita.

Ez da jorrazteko gai erraza. "Bikote harremana, elkarbizitzan edo distantzian gorpuzteak bere gorabeherak ditu. Muturreko uneetan, bizi izan dugun konfinamenduak zailtasunak ekartzea logikoa bada ere, harremana bideratzeko erronkan jartzen gaitu", Elene Jimenez Sexune taldeko sexologo eta gune honen kudeatzailearen esanetan. Zailtasun egoerek hartuemanak indartzeko balio dezaketen arren, baliteke eta "itxialdi horretatik gure harremana ahulduta ateratzea".

Gunetik bertatik gogorazten dutenez, batzuetan "guri bakarrik gertatzen zaigula pentsatzen dugu, baina ez da horrela". Zailtasunak agertuz gero, "zailtasuna arazo bilakatu baino lehen" laguntza eska-



Urrats hau ematea zaila dela ulergarria izan arren, aholkularitza zerbitzuarekin hartuemanetan jartzera gonbidatzen dute.

ELENE JIMENEZ

"Bikote zailtasunak gaindi daitezke..."

Sinestea, onartzea eta lantzea da gakoa.

Sintoma guztiek ez dute konponbide berdina, baina hobeto egoteko bideak jorra daitezke"

tzea onena, berandu baino lehen. "Aholkularitza zerbitzuan ditugun bikoteak zailtasunak arazo bilakatutakoan gertatzen dira" eta Jimenezek ohar-tarazi dutenez.

Urrats hau ematea zaila

dela ulergarria izan arren, aholkularitza zerbitzuarekin hartuemanetan jartzera gonbidatzen dute. "Bikote zailtasunak gaindi daitezke... Sinestea, onartzea eta lantzea da gakoa. Sintoma guztiek ez dute konponbide berdina, baina hobeto egoteko bideak jorra daitezke".

Hamaika egoera

"Sintomak" ugariak, anitzak izan daitezke. "Eztabaidak areagotu badira. Elkarrekiko intimitaterako gogoia apaldu bada. Lehen beregan gogoko zenituen ezberdintasunak, amorragarriak izaten hasi badi-

ra. Exijentziak eta leporatzeak egunerokoak bilakatu badira. Etxeko arduren antolaketak konfinamenduan ez dizula balio argi geratzen hasi bada. Umeei eskolako lanak irakasteko pazientziarik ez baduzu. Egitekoen zerrendak gainezka egin badizu. Elkar lotzen gaituena eskasa dela irudituz gero. Seme-alaben zaintzan ezertan ez gatozela bat irudituz gero", Sexu Aholkularitza Gunea baliagarria izan daiteke.

Baita konfinamendu garai horretan elkarrekin egoterik izan ez duten bikoteen kasuan ere. Etenaldiak luze jo badu, amaigabea izan bada, tarte horretan, telefono nahiz bideo-konferentzia bidezkoak izan badira hartuemanak eta "orain aurre aurrez egoteak lotsa ematen badigu" edota online bizipenon ostean "espero ez nuena izan eta orain atsekabetuta egonez gero", kasuotan ere lagungarria izan daiteke Sexu Aholkularitza Gunea. Agian, espetxean edo egoitza batean bereizita egon eta berriz elkartzerakoan "intimitatea sortzeko zailtasunak agertzen dira" edo "kutsatzeko beldur, oinarritzko beharrei ukotzea".

Ariketa lagungarriak

Balitzko egoera guztietan lagungarria izan daiteke Sexu Aholkularitza Gunea. Norberak bere buruari esandakoez, bakarrikzeta horietaz jabetzen lagundu dezake. Bikotekideak norbere beharra edo nahia zein den jakin ezin duenez, "behar duzunaz konturatu, gero eskatu ahal izateko. Bestela esperoan egon gaitzake eta espero duguna ematen ez

denean, frustrazioa eta besterikiko haserrea dator".

Norberak behar duenaz konturatzean eskatzea aholkatzen du. "Besteak ezin du irakurri zure pentsamendua, baina gogoz egin dezake zuk eskatutakoa". Era berean, espazio bera partekatzeagatik "itota sentitzen bazara, denbora bat hartzea izan daiteke irtenbidea, denborak planifikatzea,

txandatzeta". Bi ariketa praktikoko ere proposatzen dizkigu Sexu Aholkularitza Guneak. Gustuko 10 gauzen zerrenda osatu eta astero hauei gure agendatan tartetxo bat egitea edota "bikotekidearen gauza ilunak baino ikusten ez dituzunean gelditu, 10 arnasketa egin eta berarengan gustuko dituzun 5 ezaugarri idatzi paper zatitxo batean eta sukaldeko hozkailu

parean ikusgarri jarri".

Informazio gehiago:

■ Kale Nagusia, 43 behea (Gizarte Zerbitzuen egoitza). Orduetgia: hilabete bakoitzeko lehen, hirugarren eta bosgarren asteartean, 17:00-19:00 artean (doan, aurretik hitzordua hartuta).

■ 697 919 516


■ sexuaholku@usurbil.eus

EHBildu nagusitu zen eta abstentzioa %42koa izan zen Usurbilen

EHBilduk 1.592 bozka batu zituen Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeotan. Bozka ematera joandako hamarretik ia sei lagunek koalizioaren hautagai zerranda babestu dute. Bigarren indarra EAJ-PNV izan da, bozken %24,30ekin.

Abstentzioa parte hartzeari irabaztear

Ia "gehiengo osoa" eskuratu zuen abstentzioak Eusko Legebiltzarra berritzeko uztailaren 12ko hauteskundeetan. Parte hartzeari irabaztetik gertu ibili zen; bozkatzera deituak zeuden herritarren %47,15ak ez bozkatzea erabaki zuen EAEn. 5 puntu baxuagoa izan zen absten-



2016 eta 2020ko Usurbilgo emaitzak alderatu ditugu grafika honetan.

tzioa Usurbilen; %42,02koa. 2016an %36,36ko abstentzioa izan zuen udalerrri honen.

Gipuzkoako ordezkariak

Gipuzkoak izango dituen

25 legebiltzarkidetik, 10 EAJ-PNVkoak izango dira, 9 EHBildukoak. 3 legebiltzarkide izango ditu PSE-EEK, 2 Podemos-IU koalizioak eta eserleku bakarra PP-Cs koalizioak.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2020

EHBildu: 1.592 (%58,72).
 EAJ-PNV: 659 (%24,30).
 PSE-EE/PSOE: 184 (%6,78).
 Podemos-IU: 161 (%5,93).
 PP + Cs: 54 (%1,99).
 Equo Berdeak: 25 (%0,92).
 VOX: 15 (%0,55).
 EB-AZ: 11 (%0,40).
 PACMA/ATTKA: 8 (%0,29).
 Recortes Cero-LV-M: 1 (%0,03).
 P-LIB: 1 (%0,03).
 UCDE: 0 (%0,00).
 PUM + J: 0 (%0,00).
 LXE-EAL: 0 (%0,00).

Errolda: 4.722.

Parte hartzea: %57,98.

Abstentzioa: %42,02.

Boto zuriak: 15.

Boto baliogabeak: 0.

URPE KAKA RIAK

PLIS PLAS TXALO ETA JOLAS
uztailak 22 asteazkena

BI SAIO FRONTOIAN:
10.00 eta 11:30
(aforea mugatua)

Lehentasuna Udajolaseko haurrek izango dute.
Gainerakoak momentuan eskuratu beharko dituzte txartelak.

noa

“Jai egun borobil bat izaten ahaleginduko gara”

Pandemiarik gabeko ohiko testuinguruan Usurbilgo festak izan bagenitu, jaien bueltan ospatuko zituzten, baina aurtien Covid19-ak egunez aldarazi dizkie hitzorduak. Halere, “Usurbili dagokion moduan, kirolari eskainitako jai egun borobil bat izaten ahalegindu gara”. Eguna eta antolaketa modua bizi dugun osasun krisialdira egokitu behar izan dute. Ezinbestean modu honetan ospatu beharra dagoen arren, “dizdira kenduko dio jaialdiari”, adierazi digute Usurbil Herri Kirol Taldeak. Berez, Usurbilgo jaiak ospatu izan balira, uztailearen 5ean izango zen Herri Kirolen Eguna. Egun horretarako prestatuta lanak abiaraziak zituzten urte hasieran. Otsailerako hitzordu bat baino gehiago lotuak.

Jaialdiak Kultur Biraren baitan txokoa aurkitu du hilaren 19an. Egunez haratago, argi zuten non ospatu behar zen eguna. “Herri kirolak izanik, herriko plazan”. Aktan ere hala jaso gera dadin, eta hartara, “Usurbili halako ohore bat emateko”; are gehiago, bizi dugun ezohiko testuinguru honetan. Eguneke ekitaldiak “grabatzea eskatu dugu”. Egingakoa gorde eta etorkizunean oroitzeko.



Erronka honetarako batu dira. Txomin Alkorta Sarriegi prestatzailearen esanetara ari dira. Argazkia asteleheneko entrenamenduan atera genuen.

IGANDEKO GIZA-PROBAN

Lau herritar ariko dira harriari tiraka. 20 minutuko saioan ahalik eta zinta gehien egiten ahaleginduko dira

Egitekoak

Igandean, goizetik arratsaldera herri kirolei eskainitako eguna izango dugu Usurbilen. Haste-ko, koadrila ederra batuko da segan Udarregi Ikastola pareko belardian; 26 lagun inguru.

“Neurtutako sail bat eman eta zeinek denbora gutxiagoan txukunago egin”, hortxe segalarientzako erronka. Txukuntasuna izango da irizpide puntuagarri nagusia.

Handik plazara, Gipuzkoako Harri Txikien txapelketa. 3 minututan, 3 harri txiki zeinek gehiago altxa, hura txapeldun. 8 izen handi gonbidatu dituzte hitzordura. “Lan baten ondorioa izan da”, Usurbil Herri Kirol Taldearen esanetan. ETB bertan egotekoa da. Eguraldi

txarrarekin frontoian ospatuko litzateke.

Herritarrek giza-proban

Jaialdia borobiltzeko bazkalostean idi-dema, antolakuntzak berri eman duenez. Aurretik lau herritar ariko dira harriari tiraka giza-proban. 20 minutuko saioan ahalik eta zinta gehien egiten ahaleginduko dira. Egunotan afalorduan plazan ikusiko zenituzten entrenamendu saioetan, denak herritarrek. Erronka honetarako batu dira, prestatzaile lanetan ari den Txomin Alkorta Sarriegiren esanetara. “Espainiako sega txapelduna”, segalari oso onen aurka lehiatua, Usurbil Herri Kirol Taldeak oroitarazi dutenez. Orain giza-probako laukotea prestatze lanetan dabil.

Erronka, Usurbil Herri Kirol Taldeak Bizkaia aldean dituen zaletuen eta iazko azaroaren leian Usurbilen bertan lehiatzen zirenen eskutik sortu zen. Bizkaia harri handia nola mugitzen zuten ikustera gonbidatu eta herrian taldetxo bat osatzeko harra piztu zitzairen. Harri handia mugitzeko sei lagun behar zituzten, baina zaila zela irizita, “1.800 kilokoa tiratzeko lau tiratzaileez” osaturiko taldea eratzea jarri zuten helburu gisa. Hortik sortu zuten taldea igande honetako erronkarako.

Ikusleen artean segurtasun distantzia gordeko da

Ezohiko segurtasun eta higiene neurriak hartu ditu antolakuntzak Herri Kirolen Egunerako.

Ekitaldi bakoitzean kirol jarduera ezberdin bat plaza-ratuko denez, bakoitzak protokolo propioa izango du, nahiz oro har, neurriak beretsuak izan kasu guztietan. Kirolari parte hartzaileak osasuntsu dauden agiria aurkeztuko dute, ekitaldiak abiatu aurre-

tik tenperatura hartuko zaie.

Kultur Birako gainerako hitzorduetan gertatu den moduan, usurbilkultura.eus atarian erregistratua egon, jaialdiko ekimenotarako izena eman eta sarrerak egokitu zaizkien ikus-entzuleek ospakizun gu- neak izango diren Udarregi Ikastolako belardi parera nahiz frontoi ondoko plazara hurbildu aurretik bi “segurtasun le- rro” zeharkatu beharko dituz-

te. Udarregi Ikastolara heltzeko Oiardo Kiroldegi parean kokatu- tuko dute sarbidea. Frontoi ondoko plazan sartzeko gunea Sutegi parean.

Inprimatuta nahiz mugikor- rean, sarreraren QR kodea erakutsi beharko da lehenik, gel hidroalkoholikoarekin garbitu beharko dira gero eskuak. Eta barrura. Sega txapelketa zutik ikusteko es- kaera egina du Usurbil Herri

Kirol Taldeak.

Maskara jantzita joan

Plazako ekitaldiak bai, bueltan jarriko diren harmaila eta eserlekutan jarrita ikusi ahaliko dira. Giro euritsua bada frontoian. Beti, ikusleen arteko segurtasun distantzia bermatuta. Herri kirolen jaialdiaz gozatzeko huts egin ezingo den araua; musukoa edo maskara jantzita joan.

Uztailak 19 igandea, herri kirolen eguna

Uztailak 19, igandea

■ 10:00 Sega txapelketa Udarregi Ikastola aurreko belardian.

■ 12:00 Gipuzkoako Harri Txikitako Txapelketa herriko plazan.

Partaideak: Manex Aburuza Alduntzin, Iraitz Arruti Artetxe, Iñigo Eizagirre Askaray "Eiza", Gorka Etxeberria Iku-tza, Aimar Irigoyen Jauregi, Hodei Iruretagoiena Uria "Izeta IV", Mikel Lopetegi Gereka "Urta", Xabat Olaizola Arizti. 3 minutuko txanda harri bakoitzarekin: garailea kilo gehien altxatzen dituen izango da.

Harriak: 125 kg Kopa (10 arroa), 112,5 kg. kubikoa (9 arroa), 100 kg. bola (8 arroa).

■ 18:00 Giza-proba. 4 gizo-



Giza-proba arratsaldeko 18:00etan hasiko da. 4 gizonetako arituko dira tiraka, 1.800 kiloko harriarekin.

nezko 1.800 kiloko harriarekin. Partaideak: Gabriel Sarasola Ibargoiien, Aitor Alkorta Etxe-

berria, Iñaki Portularrume Unanue, Iurgi Mendiluze Zuloaga eta Txomin Alkorta Sarriegi.

Ondoren, idi-dema. Inaxio Telleria eta Jose Ramon Olazaranen idiekien.

Kultur Bira, egitaraua

UZTAILAK 16, OSTEGUNA

■ 09:00-17:30 UEU-ren 48. udako ikastaroen baitako Jakin Jardunaldiak Udarregi Ikastolan: "Pandemiak, distopiak eta mundu berriak".

■ 20:00 Kontzertua Mikel Laboa plazan: Gartzot.

UZTAILAK 17, OSTIRALA

■ 19:00 Antzerkia Olanonea plazan: "Skratx".

■ 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zarra kanpoan: Malen eta Maddi.

UZTAILAK 18, LARUNBATA

■ 20:00 "Birritan bortxatua" antzezlan eta Jurgi Ekizaren emanaldia Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. "Antzerkia eta zuzeneko musikak uztartuko ditu uztaileko hirugarren larunbateko proposamenak. Batetik, Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen eskutik, "Birritan Bortxatua" antzezlan izango dugu ikusgai. Nagore bortxatua izan da: salaketa jarri, eta epaiketa nola bizi duen kontatuko du antzezlan

sakon eta beharrezko horrek. Nagore Laffageren eta Iruñeko talde bortxaketako epaiketetan oinarritua, euskarazko "fikzio-dokumental" estiloko antzezlan dugu.

Jarraian, Jurgi Ekizaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Willis Drummond taldeko sortzaile eta kantariak bakarka argitaratu duen lehen diskoa aurkeztuko du. "Rock ilun eta pertsonala, zati indartsu zein distortsionatuak, zati minimalista batzuekin nahastuz, ahots eta hitz gordinez datorkigu sortzaile lapurtarra".

Sarrera: herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez. Sarrerak eskuratzeko uztailaren 16ra arteko epea. Usurbilgo herritarrentzat bakarrik. Edukiera: 60 lagun.

UZTAILAK 19, IGANDEA

Herri Kirolen Eguna

■ 10:00 Sega ekitaldia Amitzaren eskutik, Udarregi Ikastolaren pareko belardian.

■ 12:00 Gipuzkoako Harri Txiki altxatze Txapelketa Dema plazan.

■ 18:00 Giza-proba eta ondoren idi-dema Dema plazan.

UZTAILAK 24, OSTIRALA

■ 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zarraren kanpoan: Odolaren Mintzoa.

"Odolaren Mintzoa talde usurbildarra formatu akustikoan gozatzeko aukera izango dugu Kultur Biran. Argitaratuak dituzten bi diskoetako abestiez eta bertsiotzat osaturiko kontzertua izango da".

Sarrera: herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez. Sarrerak eskuratzeko uztailaren 22ra arteko epea. Usurbilgo herritarrentzat bakarrik. Edukiera: 50 lagun.

UZTAILAK 31, OSTIRALA

■ 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zarraren kanpoan: Dalton Anaiak.

"Elektropapo elektrotxar-rangako kideen proposamen

akustikoa dugu Dalton Anaiak izeneko proiektu berria".

Sarrera: herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez. Sarrerak eskuratzeko uztailaren 29ra arteko epea. Usurbilgo herritarrentzat bakarrik. Edukiera: 50 lagun.

Oharrak:

-Sarrerak aurrez eskuragarri usurbilkultura.euswebgunean.

Informazio gehiagorako:

943 371 999
usurbilkultura.eus

Antolatzaileak:

Jexux Artze Kultur Elkarte, Agiñako Eliza Zarra herri elkargunea, San Estebango Jai Batzordea, Herriko Artixtak, Hitz-Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarte, Santueneko Jai Batzordea, Xauxar Txosna Batzordea, Atxegaldeko Jai Batzordea, Usurbilgo Jai Batzordea, Usurbilgo Udala.

Konfinamendu osteko Oreka TX-en jendaurreko lehen emanaldia Aginagan

Aginagara jauzi egin zuen asteburuan uztailearen lehen abiatutako Kultur Birak. Iragan ostiralean, Oreka Tx taldeak “Koklea” lan berria aurkeztu zien Aginagako Eliza Zaharrera joandakoei. “Poza ematen du, gune hauxe hala ikusteak”, zioen Harkaitz Martinez de San Vicentek, Aginagako Eliza Zaharreko kontzertu hasieran. Konfinamendu ostean jendaurrean eskainitako lehen emanaldia zuten. “Hauxe dugu nahigabe honen ondorengo aurreneko kontzertua, publikoarekin behintzat. Aurreko astean publikorik gabeko bat izan genuen”.

Abenduan plazaraturiko “Koklea” izeneko lan berria aurkeztu zuten, streaming bidez ereusuribilkultura.eus ataritik ere zuzenean ikusi ahal izan zena.

“Koklea”, Txokoaldean sortutako ikuskizuna

Oreka Tx taldeak lotura estua du udalerrri honekin. “Disko honen berezitasunetako bat da, Txokoalden sortua dela ia bere osotasunean. Hain zuzen



Abenduan plazaraturiko “Koklea” izeneko lan berria aurkeztu zuten Aginagako Eliza Zaharrean.

OREKA TX AGINAGAN

**Kultur Biraren
protokolo zehatza
zorrotz errespetatzen
segitzen dute herritarrek**

ere, Txokoaldeko Txalapartxa Txokoan aritzen garela daki-zuen bezala”, Martinez de San

Vicentek gogorarazi zuenez.

Protokolo berezia

Eliza Zaharreko kontzertuaz gozatzeko ere leku mugatua zegoen, eserlekuak elkarrengandik behar beste bereziak, eskuak garbitu behar eta maskara jantzi behar hara sartu aurretik... Kultur Biraren protokolo zehatza zorrotz errespetatzen

segitzen dute herritarrek.

Oreka Tx taldeari eginiko bideo-elkarrizketa

Aurreko astean, “Ekinean” atalaren baitan, Oreka Tx taldeari eginiko bideo-elkarrizketa sare-ratu genuen. Euren ibilbideari buruzko xehetasunak eskaini zizkiguten. Gure noaua.eus web orrialdean duzue ikusgai.

Asier Kidam magoarekin txundituta

“Aroa eta mirariak” emanaldi berria eskaini zuen Asier Kidam mago gasteiztarak, Kultur Biraren baitan, uztailearen 11n Aginagako Eliza Zaharrean. Bertaraturiko haur eta helduak txunditu zituen, guztiz parte hartzailea izan zen ikuskizunarekin.



Asier Kidam mago gasteiztarra Aginagako Eliza Zaharrean aritu zen aurreko larunbatean.



Alazne Arruti Bengoetxea

Gaurkoan, ariketa batekin natorkizue. Udarekin batera, badirudi koloreak berpiztu egiten direla, eta armairuaren %70 beltza izanagatik, koloreekin jolasteko gogoz sentitu naiz.

Koloreek, euren existentziaz gain, testuinguruaren beharra dute, izateko. Bizitzaren parte den orenen antzera, gure pertzepzioa, inguruaren arabera aldatzen baita. Eta gu inguratzen gaituena bezain garrantzitsua da koloreek duten ingurunea ere.

Ez baita bera, horia, Donostiako Kontxako badiaren gainean aireztatzea edota udaletxeetako balkoietan oihal gorriaren gainean tartekatzea. Eztabaidaezina da hala ere, haizerik ezean, banderek trapu izaten jarraituko dutela edozein ezaugarri propio izanda ere.

Pertsona batetik bestera ere, koloreak modu ezberdinean hautematen ditugu. Baina hala eta guztiz ere, kolore bakoitzari, esanahi bat erantsi nahi izan zaio urte luzeetan, eta gugan eragin dezaketenaren erakusle da, publizitate zein marketinean ematen zaien erabilera.

Koloreen eta emozioen arteko lotura beraz, uste baino estuagoa da, eta zientzia espezializatu bat garatzerai-

Zenbait koloreen nolakotasunak



“Koloreek, euren existentziaz gain, testuinguruaren beharra dute, izateko”. Argazkia: @helloimnik.

ALAZNE ARRUTI

“Gu inguratzen gaituena bezain garrantzitsua da koloreek duten ingurunea ere”

noko gorabeherak gordetzen ditu beregan. Hain zuzen, Goethe poeta, nobelista, dramaturgo eta zientifiko alemana izan zen bidea uztartu zuen lehenetarikoa, < < Koloreen Teoria > > plazaratuaz. Liburu haren bitartez finkatu zituen, gaurdaino garatu diren oinarrietako batzuk, eta jakintza titulutan neurtzen duen gizarte batentzat harri-garri suertatu daitekeen arren, garaiko teoria Newtonarren aurka zioan bere pentsaera.

Goethek osaturiko koloreen gurpilaren antzera, honatx nire egunerokotasuna osatzen duten zenbait koloreen nolakotasunak:

Horia

Kolore piztua den kasuetan bizitasuna iradokitzen dit. Argia, eguzkia, udako egun sargoriei dariena. Aldizkari hauxe. Ziztuan irentsi nuen Charlotte Perkins-Gilmanen *Hormako Paper Horia* liburuaren zaporea. Zoramenaren kolorea. Eta apala edo errea den kasuan, ahultasunarekin lotzen dut. Indargabetasuna, edota gaixotasunarekin. Orbel ihartu eta goibel, edo ahoratu gabeko izozki urtuekin.

Gorria

Debekuarekin lotzen dudun arren, bada nigan pisu gehiagoko duen alderdi bat. Soinean daramadan dena delakoari jaramonik egin gabe ezpainak margotzen ditudanean biltzen nauen zirrara. Irribarre zabalak pizgarria. Gorputzera bueltan naramana. Errailetara

itzularazten nau. Odola nabari dezaket borborka, uteroa bihotz taupadaka. Alaine Agirreren *Odol Mamituak* liburu oihuka, eta osasun mentalaren enigmetan barrena narama.

Urdina

Itsasoa eta kresala. Aukeran nahiago garbia eta hondakinik gabea bada. Aparren bitsa, txoriek zeharkatutako zeru-ertza, eta duela urte batzuk horren ezaguna ez zen, baina geroz eta bisitatuagoa den etxe ondoko hondartza basatia. Itsasontziak eta kaiak. Arroak eta karramarroak. Bermeoko Talako Kantina eta Ekaitz Goieneztearen *Zaldi Mamarroa* nobela. Drogak, eta odol emateetan soilik zulatu ditudan zainak.

Berdea

Lurra eta natura. Belardiak eta landaredi bizia. Harmonia eta oreka. Mendiak, puntara bitarteko arnas estuak eta pinu gaixo edo eukalip-toez baino, jatorrizkoa zuhaitz osasuntsuez osaturiko paisaia zabalak. Jean Giono Frantziarra eta alpeetan Haritzak landatzen zituen gizonaren kontakizuna.

Armairua ezean, zuen irakurketek osatzen duten barne liburutegia zertxobait koloreztatzen jarraitzeko amua duzue hauxe.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Antton Bernal dentista: “Ohiko martxatik gertu gaude”

NOAUA! Konfinamenduarekin itxi egin behar izan zenuten Usurbilgo Hortz Klinika. Zenbat denbora egon zineten laneira etorri gabe?

Antton Bernal Ruiz De Oña, Hortz Klinika: Kontsulta itxita egon zen hilabete eta erdi. ERTE bat egin genuen eta klinika itxita egon zen urgentek ez ziren tratamenduetarako.

Baina larrialdiak atenditzeko aukera izan zenuten, ezta?

Bai. Larrialdi kontzeptuaren barruan min zorrotzak, infekzioak, odol jarioak eta traumatismo orofazialak sartzen ziren.

Larrialdia zen ala ez baloratzeke, nik neuk egiten nuen pazientearekin hitz egin ondoren.

Segurtasun protokoloak jarraitu beharra daude jendaurrean aritzeko. Hortz kliniketan zer



Antton Bernal Ruiz de Oña, aisialdian eginiko argazki batean.

ANTTON BERNAL

“Pazienteek ezin dute egongelan elkartu, eta garbitasun protokolo bat jarraitu behar dute sartzeraokan”

esanik ez. Zuen lanean zer nolako eragina izan du? Zuen lan

egiteko modua asko aldatu behar izan al duzue?

Segurtasun protokoloak eskatzen du, bereziki, lan eta denbora gehiago. Zitak luzeagoak eta tarte handiagoak.

Pazienteek ezin dute elkartu egongelan eta garbitasun protokolo bat jarraitu behar dute sartzeraokan (irakuzketak soluzio antiseptiko batekin egin behar dira, eta eskuetan gel desinfektantea erabili).

Garbiketa bereziak ere kontsultako altzariei eragiten die, ohiko esterilizazioaz aparte.

Badirudi normaltasun giro bat nagusitzen ari dela. Dena den, badago jende bat beldurrez dagoena oraindik. Zuek igarri al duzue? Lehen baino lan gutxiago duzue edo berdintsu al zabilzate?

Normaltasun giroa atzematen da, gero eta gehiago, baina

gaia oso presente dago pazienteen komentarioetan. Ea nola lan egiten dugun adibidez, galdera horiek ere ohikoak dira. Lan gutxiago eduki dugu baina, gaur egun, oso gertu gaude ohiko mailatik.

“Bonu guztiak saldu genituen oso denbora gutxian”

Udalak, kontsumoa sustatzeko xedez, ‘Gertuago’ kanpaina abiatu du. Zuek ere hartu duzue parte. Bonu salmenta nola joan da zuen kasuan? Eta kanpainak eman duenarekin pozik al zaudete?

Bonu guztiak saldu genituen oso denbora gutxian. Oso pozik gaude kanpaina honekin eta oso idea ona izan da jarduera komertzialak berpizteko eta herritarrei konfiantza emateko.

Ekaitz Garmendia: “Konfinamenduan erdizka utzitako lanei oraingo berriak batu zaizkigu”

NOAUA! Konfinamenduarekin itxi egin behar izan zenuten hortz klinika.

Ekaitz Garmendia, Hortz Klinika: Bai. Dena den, larrialdi zerbitzua irekita mantendu da infekzioak eta abar atenditzeko, eta gure pazienteek ospitaleko urgentzia-baliabideak erabili ez ditzaten (kolapsoa ekiditeko eta kutsatze-arriskua gutxitzeko).

Segurtasun protokoloak bete behar dira jendaurrean aritzeko. Zuen lanean zer nolako eragina izan du honek?

Guk, berez, beti aplikatu behar izan dugu protokolo bat desinfekzio eta esterilizazio arloan. Beraz, aldaketa handirik ez dugu sumatu. Hala ere, hartutako protokoloak askoz ere zorrotzagoak dira orain Covid19a-



Lan askorekin ibili dira Hortz Kliniketan, “baina egoera lasaitzen hasi da”. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

EKAITZ GARMENDIA

“Covid19aren eraginez, segurtasun protokoloak zorrotzagoak dira orain”

ren eraginez.

Badirudi normaltasun giro bat nagusitzen ari dela. Dena den,

badago jende bat beldurra gainetik kendu ezinik dabilena.

Denetarik ikusi daiteke, jende lasaia eta beldurrarekin jarraitzen duen jendea. Konfinamenduari aurre egin eta gero, nik uste nuena baino animatuago dago jendea. Tratamenduak egiten ari dira, eta ez premiazoak direnak bakarrik.

Orain lan askorekin ibili gara konfinamenduan erdizka utzitako lanei oraingo berriak batu zaizkigulako. Pixka bat lasaitzen hasi da egoera, hala ere. Abuzturako espero dugu lan guztia eginda uztea, ea horrela oporraldi bat egin dezakegun, atsedean hartu eta pilak kargatu ahal izateko.

‘Gertuago’ kanpainan hartu duzue parte. Bonu salmenta nola joan da zuen kasuan?

Oso kanpaina ona iruditu zait, herritarroi laguntzeko eta kontsumo lokala sustatu ahal izateko. Eskertzekoa benetan horrelako ideiak izatea, eta negozio txikiei eman diguten bultzadagatik.

Oso harrera ona izan dute bai bezeroen bai komertzioen aldetik.

Iturralde farmazia: “Garai zaila pasa dugu”

NOAUA! Konfinamendua ezarri zenean, horniketa arazoak egon ziren farmazia askotan. Zuek ere antzeko egoera bizi izan al zenuten?

Tomas, Iturralde farmazia: Bai, dudarik gabe. Lehen hilabetean ez maskararik, ez gelik, ez eskularrurik... Ezer ez. Gauza da Administrazioak konfiskatu egin zuela dena. Guk genuen ordena zen geneukan material guztia Administrazioaren esku utzi behar genuela. Nahiz almazena gurea izan, nahiz eta materiala erosteko aukera izan, dena konfiskatuta geneukan. Hilabete egon ginen ezer gabe. Gelak guk egiten genituen baina alkohola ere agortu egin zitzaigun. Guk gure existentziak bagenituen eta horrekin moldatu ginen gela prestatzeko hemen.

Guk jendaurrean seguru aritu ahal izateko, maskarak ere



“Hiru hilabetez etxean egon den hori ere hasi da agertzen. Baina ardura handiarekin”, esan digu Tomas Iturraldek.

TOMAS ITURRALDE

“Administrazioak dena konfiskatu zuen: maskarak, gela, eskularruak... Hilabete egon ginen ezer gabe”

beste bide batetik lortu behar izan genituen.

Egoera zaila pasa duzue.

Oso zaila. Administrazioak konfiskatu egin zituen maskarak baina ez zuen oso argi esaten kalerako maskara behar ote zen. Ez zegoenez, ez zen argi esaten. “Behar da baina ez dago” esango balute, alarma handiagoa piztuko zelako.

Konfinamenduarekin protokolo bat ezarri zen. Bezeroek zer moduz hartu dituzte segurtasun neurriak?

sun neurriok?

Oso ondo. Hasieran banaka atenditzen genuen. Jendeak kanpoan geratu behar zuen zain baina pazientziarekin eraman dute egoera.

Konfinamenduarekin lan-bolumenta handitu egin al zaizue?

Beste martxa batean lan egin dugu.

Gauzak normaltzen hasi direla dirudi. Jendea lasaiago hurbiltzen al da farmazietara?

Jendea mugitzen hasi da. Helduak ere bai. Hiru hilabetez etxean egon den hori ere hasi da agertzen. Baina ardurarekin. Jende heldua bereziki oso kontzientziatuta dago. Jende gaztea akaso ez.

Oraingoz errespetatzen dira neurriak. Maskara nahitaezkoa da eta, hala ere, baten bat sartzen da gabe. Baina kasu gutxi dira.

Amenabar farmazia: “Bi txanda ezarri genituen, kutsatzeak ekiditeko”

NOAUA! Konfinamendua ezarri zenean, horniketa arazoak zeuden farmazia askotan. Zuek ere antzeko egoera bizi izan al zenuten?

Laida, Amenabar farmazia: Farmazia guztietan bezala, hornidura arazoak izan ditugu. Zorionez, laborategi esterila dugunez, gure gel hidroalkoholikoak formulatu ahal izan ditugu eta maskaren aldetik ez dugu hornidura faltarik eman. Hala ere, badaezpada familiako kopuru murriztu bat egokitu genuen familia guztietara iritsi ahal izateko, ez baikenekien noiz arte luzatuko zen egoera hau.

Produkturen bat agortu al zitzaizuen?

Termometro digitalak eta infragorriak, adibidez. Gelak



“Jendea lasai gerturatzen da. Ez dugu beldurra nabaritzen, ez behintzat martxoan eta apirilean bezala”.

AMENABAR FARMAZIA

“Eskertzekoa da jendeak eduki duen pazientzia eta eman dizkiguten eskerrak eta animoak”

formulatzeko garaian ere, alkohola eta ontziak aurkitzeko arazoak izan genituen eta baita eskularruak ere.

Konfinamenduarekin segurtasun neurriak ezarri ziren. Distantzia errespetatu, aforoa mugatu, maskara jarri... Jendeak zer moduz hartu ditu neurriak?

Egia esan, bai distantziak eta bai aforoak oso ondo errespetatu ditu jendeak. Maskarak agian hasieran ez zituzten denak erabiltzen, baina momentu honetan esan dezakegu farmaziara sartzen diren guztiek erabiltzen dutela. Maskara gabe sartzen dena, erosi behar duelako da.

Konfinamenduak lan gehiago ekarri du sektore askotara. Zuen kasuan ere, pentsatzen dugu ordu gehiago sartu behar izan dituzuela. Gauzak orain normalizatzen hasi direla esan al daiteke?

Bai, alde batetik jende gehia-

go hurbiltzen zelako farmaziara normalean baino, eta ilarak egiten ziren. Bestetik, farmazian bi txanda ezarri genituen batak bestea ez kutsatzeko, eta edozer pasata ere, farmaziak lanean jarrai zezan.

Honek ere, lana areagotu zuen lan talde erdiarekin egin behar genuelako lan.

Asko eskertzen dugu jendeak eduki duen pazientzia eta eman dizkiguten eskerrak eta animoak.

Orain, farmaziako mostadoreko lana normaldu da jada. Baina bestalde, laborategiko lana asko igo da. Konfinamendu garaian jendea ez da medikura hainbeste hurbildu eta momentu hartan izan ez genituen formula magistral guztiak orain iristen ari dira.

Lau urterako lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Udalak, UEU-k eta Jakin-ek

Lau urterako lankidetzaren hitzarmena berriro dute Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Usurbilgo Udalak eta Jakin Fundazioak, hiru urteko elkarlaneko bidea jorratu ostean. Udalak “zinez balorazio bikaina egiten du orain arteko bidez. Erosoa, erraza eta gustagarria izan da zuekin aritzea eta gainera zinez aberatsa ere”, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, UEU-ko zuzendari Kepa Sarasolarekin eta Jakin aldizkari zuzendari Lorea Agirrerekin batera duela aste batzuk Potxoenean egindako agerraldian.



Hitzarmena sinatzearekin bat, uztailaren 16an Usurbilen egingo diren Jakin Jardunaldiak aurkeztu zituzten.

Hitzarmena sinatu eta hiru eragileok uztailaren 16rako Usurbilen antolatutako UEU-ren 48. udako ikastaroen baitako Jakin Jardunaldiak aurkeztu zituzten. Jardunaldiok ospatzen segitzea ahalbidetuko du hain zuzen, aipatu lankidetzaren hitzarmenak.

Usurbilgo Udalak gune bat eskaintzen segiko die jardunaldi hauei, ez ordea “areto edo ikasgela soil bat”, hausnarkeari eta ezagutzari eskainitako gunea, “birpentsatzeko eta birformulatze”, alkatearen esanetan. Garai zail hauetan “asko dugu birpentsatzeko, eta zer esanik ez aldatzeko”.

AGURTZANE SOLABERRIETA

Bizitakotik herri eta gizarte bezala zer ikasia badugula irizten dio alkateak, bereziki “ez dadila dena lehenera bueltatu”

Bizi dugun krisialdiak “sistema hau biluzik utzi du”, Solaberrietaren esanetan. Eta agerian geratu dira, “gizarte honen kontraesan sakonak, ga-beziak, ezaugarriak...”. Baita lehentasuneko eta ezinbes-

tekoa zerk izan behar duen. “Bat-batean konturatu gara zer den garrantzitsua; bizitza, bai gurea eta bai hurkoarena”.

“Etorkizuna irudikatzea dagokigu”

Bizitakotik herri eta gizarte bezala zer ikasia badugula irizten dio alkateak, bereziki “ez dadila dena lehenera bueltatu”. Zalantzaz betetako etorkizun ziurgabe baten aurrean aurkitzen garela. Testuinguru honetan ospatuko dira Usurbilen, distopia mintzagai nagusi izango duten aurtengo Jakin Jardu-

naldiak, duela bi urte utopiez aritu ostean. “Badirudi bat-batean distopian sartuta gaudela, noraezean apur bat. Baina ziur naiz distopia honek etorkizun hobe baten utopia berria ekarriko duela”. Beste eredu eta mundu bat posible dela azpimarratuta, orain “etorkizuna irudikatzea dagokigu”.

Eta horretarako ezinbestekotzat jo ditu uztailaren 16an Usurbilen batuko diren pentsalariak. “Horra hortaz gure gonbita. Gusto baduzue, Usurbilen ikusiko dugu elkar uztailen. Zuen zain gaituzue”.

UEU: “Ilusioz begiratzen diegu urte hauei”

Sinergiak bilatzea ezinbestekoa deritzo UEUko zuzendari Kepa Sarasolak eta alde horretatik emankortzat jo du Udala, UEU eta Jakinen artean sortu den elkarlana.

UEU-k jardunaldiotan egiten duen ekarpena gogorazari zuen; adituen lanak ekoitzi eta gizartearen esku jartzea izanik, eztabaida, hausnarke-ta topaguneok sortzea, “haus-

narketarako erakusleho bat eskaintzea” euskara ardatz hartuta. Oraingoan Usurbila dakarte topagune hau. “Usurbil kultur paradisu txiki bat da eta hona ekartzen dugu guk eztabaida hau”, nabarmendu zuenez, “elkarrekin lelopean”.

Jakin: “Ikasi dezagun guztion artean eta guztion partetik”

Lankidetzaren hitzarmena ere-

dugarriztat jo zuen Jakin-en zuzendari Lorea Agirrek. “Usurbilgo udaletxeak eskaintzen dizkigun baldintzak, ez dira oso ohikoak izaten, erakunde publikoekin lan egiten dugunean. UEU-rekin lan egitea oso erraza da, oso ondo konpontzen gara, efikazia erabatekoa dute”.

Jakinetik “edukiekin asmatzen saiatzen gara, gutxienez

jendeari interesa sortuko dion zerbait ekartzen urtero mahai gainera”.

Lankidetzaren hitzarmenak Jakin-i espazio eta denbora bat ahalbidetzen dio Lorea Agirreren esanetan, “jendeari pentsatzen jartzeko eta pentsamendu eta eztabaida hori zabaltzeko”, eta gainera, “aurrez aurreko ekimen batean”.

“Presoen egoera ez da asko aldatu azken urteotan”

LARUNBAT HONETAN SARE TALDEAK ZUBIETAKO BUELTA OSATUKO DU OINEZ

NOAUA! Usurbil eta Zubieta lotuko dituen martxa bat antolatu duzue larunbat honetarako.

Aitor Landaluze, Sare: Usurbilen Sare taldea dago eta saiatzen gara Sareko dinamikak eskualdean garatzen. Orain *Izan Bidea* kanpaina ari gara bultzatzen. Bi urteko egitasmoa da.

Zein da ekimenaren helburua?

Azken urteotan, gure mezua zabaltzen aritu gara gure ikuspegia ez zuen jendearen artean. Preso guztientzat eskubide guztiak, labur esanda. Pixkanaka-pixkanaka sare bat osatu da eta orain sare hori aktibatu nahi dugu.

Presoen egoeraren berri eman nahi duzue gizarte mailan.

Bai, presoen egoera ez baita asko aldatu azken urteotan. Berdin jarraitzen dute, salbuespenezko legedi batekin eta horrek suposatzen duen injustizia guztiarekin. Gizarte mailan ordea, salbuespenezko egoera hori ez da ikusten. Ez gizarte mailan ezta politikoki ere. Ematen du salbuespenezko egoera hori baliatzen ari direla zigor kode gisa, eta guk dinamika horrekin hautsi nahi dugu. Adibide mila ditugu: larriki gaixo dauden presoak, edade altuko presoak edota motxiladun umeak, besteak beste. Egoera horiek guztiek berdin jarraitzen dute eta Covid19 birusaren kontu honekin gainera, ikaragarri larritu dira.

‘Izan bidea’ kanpainarekin jendea mobilizatu nahi duzue. Zertan datza?

Euskal Herriko biztanle bakoitzeko kilometro bat egin nahi da. 3 milioitik gora kilometro osatu nahi ditugu guztira. Horretarako ekimenak antolatu ditugu, eta mugimendua bidez –korrika, bizikletan, dantzan eta asmatzeke dauden



Aitor Landaluze Sare Usurbil taldeko kidea da. Larunbat honetako ibilalditxoari buruzko azalpenak eskaini dizkigu.

AITOR LANDALUZE

“Larunbat honetan, arratsaldeko 17:30ean abiatuko gara Mikel Laboa plazatik. Trikitilariak girotuko dute ibilaldia”

euskarrien bidez– haxe adierazi nahi dugu: egoera honi soluzio bat eman behar zaiola.

Ekimen horietako bat izango da larunbat honetako: Zubietako buelta osatzea. Beste herri batzuetan aldiz, bizikleta-irteerak edota mendi mar txak iragarri dituzte.

Hori da.

Herriz herri, denen artean kopuru hori osatzea da ‘Izan bidea’ kanpainaren asmoa.

Aplikazio bat sortu da propio, denon artean eginiko kilometro horiek guztiak bilduko dituen.

Ekimen hau Usurbilen aurkezteko asmoz, Zubietako buelta osatuko dugu. Larunbat honetan, arratsaldeko 17:30ean abiatuta. Gure kasuan, ‘Izan bidea’ ekimena *Motxiladun umeekin* lotu nahi dugu. Herri honetan bizi dugun errealitate bat hori delako. Xua dugu Usurbilen; kartzelatik atera zenetik

behin bakarrik ikusi ditu gurasoak. Eta Xuaren amak, Olatz Lasagabasterrek, data hauetarako espero du bigarren umea.

Nondik abiatuko da larunbateko ibilaldia?

Arratsaldeko 17:30ean abiatuko gara Mikel Laboa plazatik. Kalezarrera joko dugu, handik Troiara... Zubietako buelta osatuko dugu, azken batean. Eta itzuli, Santuenetik barrena itzuliko gara.

Familia giroko plana dirudi.

Bai, asmoa hori da. Trikitilariak girotuko dute larunbat honetako ibilbidea.

Uztailaren 23an, herrialde mailako bizikleta martxa

NOAUA! Uztailaren 23rako aldiz, bizikleta martxa bat antolatu duzue. Herrialde mailakoa da, ezta?

Aitor Landaluze, Sare: Uztailaren 23tik 25era egingo da ‘Izan Bidea’ bizikleta itzulia, Sare antolatzen duen hirugarrena.

Aurtengoa ordea, edizio berezia izango da, Covid19a dela eta ezarritako egoerak dakartzan oztopoak eta hartu beharreko segurtasun neurriak direla eta.

Gure eskualdeari uztailaren 23a dagokio. Lekunberrietik

abiatu eta Donostiara helduko da, Nafarroa eta Gipuzkoa batuz. Tolosa, Andoain, Urnieta eta Hernanitik barrena igaroko da. Partehartu nahi dutenak Lekunberrietik abiatu daitezke edota Andoainen batu daitezke bestela.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabiltza gurasoekin baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarekin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 66115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Santueña auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntu kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CV info@quantum.eus](mailto:CV.info@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetak, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaiz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman di-

tzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat, interna bezela, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 664192760 / 722 48 39 94

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deituko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbil-

**Zorionak Noa!!**

Berriz ere uztailak 15.

Iritsi zaigu zure 6. urtebetetzea.

Muxu handi handi bat,

jarraitu beti bezain sorgin.

en garbiketa lanetan zein zain-tza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzate-

ke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak/umeak zaintzen lan egingo nuke. 631864292.

Pertsona helduak edo umeak

zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

BESTELAKOAK

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://libb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarina Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 20 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Uztailak 16 - Uztailak 26

Osteguna 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

17 ostirala

- **Kultur Bira.** 19:00etan antzerkia Olanoeanean: "Skratx". 20:00etan kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean: Malen eta Maddi.
- **Zorione Mendezen erakusketa** Artzabalen.
- **Elizako erlojuari buruzko erakusketa** 18:00etatik 20:00etara Sutegin.

18 larunbata

- **Kultur Bira.** 20:00 "Birritan bortxatua" antzezlan eta ondoren Jurgi Ekizaren kontzertua Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.
- **Zorione Mendezen erakusketa** Artzabalen.
- **Elizako erlojuari buruzko erakusketa** 18:00etatik 20:00etara Sutegin.

19 igandea

- **Kultur Bira, Herri Kirolen Eguna.** Ikus 13. orrialdea.
- **Zorione Mendezen erakusketa** Artzabalen.
- **Elizako erlojuari buruzko erakusketa** 18:00etatik 20:00etara Sutegin.

Jarduera ugari antolatu dira asteburu honetarako

Uztailak 16, osteguna

- 09:00-17:30 Jakin Jardunaldiak Udarregi Ikastolan.
- 20:00 Mikel Laboa plazan: Gartxot.

Uztailak 17, ostirala

- 19:00 Antzerkia Olanoeena plazan: "Skratx". "Antezlan dibertigarria da, umeentzako zein helduentzako pentsatua. Skratx-ek, denboraren poderioz, superheroitik antiheroira nola igaro den kontatuko digu. Umerez eta samurtasunez beteriko emanaldia dugu".
- 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharreko kanpoaldean: Malen eta Maddi.

Uztailak 18, larunbata

- 20:00 "Birritan bortxatua" antzezlan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. "Nagore bortxatua izan da: salaketa jarri, eta epaiketa nola bizi duen kontatuko du antzezlan sakon eta beharrezko horrek. Nagore Laffageren eta Iruñeko tal-



Kultur Biraren baitan, "Birritan bortxatua" izeneko antzezlan ikusteko aukera egongo da larunbat honetan Udarregi ikastolan.

de bortxaketako epaiketetan oinarritua, euskarazko 'fikzio-dokumental' estiloko antzezlan dugu".

Antzezlanaren ondoren, Jurgi Ekizaren kontzertua. Emanaldi bikoitz hau mar-

txoan egitekoa zen baina pandemiarengatik atzeratu egin behar izan zen.

Uztailak 19, igandea

Herri Kirolen Eguna

- 10:00 Sega ekitaldia Amitzaren eskutik, Udarregi Ikastolaren pareko belardian.
- 12:00 Gipuzkoako Harri Txiki altxatze Txapelketa Dema plazan.
- 18:00 Giza eta idi-dema Dema plazan.

Uztailak 24, ostirala

- 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharreko kanpoaldean: Odolaren Mintzoa.

Uztailak 31, ostirala

- 22:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharreko kanpoaldean: Dalton Anaiak taldearen zuzeneko.

Informazio gehiagorako:

943 371 999

usurbilkultura.eus

Elizako erloju berritua ikusteko azken egunak

Zaharberritua izan den Elizako erloju jatorrizko lekura itzuli aurretik, jendaurrean jarri dute ikusgai. Uztailearen 1etik 19ra, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, Sutegiko aretoan zabaldu duten erakusketan.

Zorione Mendezen erakusketa Artzabalen

Artzabalen ikusgai duen lan bat zozkatzeko asmoa du. Parte hartzeko barrako eltxetxoan "borondatea eman (diru, mezu, marrazki... bidez). Ondoren izena eta telefono zenbakia utzi bertan egongo den paper batean".

Jakin Jardunaldiak Udarregi ikastolan

Covid19ak sorturiko errealitate distipikoez eta bertan sorturiko aukerez jardungo dute ostegun honetan, hilak 16. Eguna borobiltzeko, Gartxot kantaria arituko da 20:00etan Mikel Laboa plazan. Jardunaldietarako sarrerak agortuta daude.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patria Jaietxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net 649 43 54 75
IT-ak egiten dira 943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5



ANTXETA

taberna-jatetxea

INAUGURAZIO BERRIA!
uztailak 22, asteazkena, 18:00-20:00

egunero irekitzen dugu!

- eguneko menua (astelehenetik-larunbatera, eguerditan)
 - jaiegunetan: karta
 - ogitartekoak, pintxoak, razioak..
 - zerbitzu berriak: oilasko erreak, hanburgesak...
- ORAIN ETXERAKO ZERBITZUA ERE!**

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

ARATZ

zabaleta anaiak



31 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten

·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04



Emaiozu bizitza
herriaril

Usurbilgo merkatariak gertu gaude!

%20
des
kontua
bonuetan

Erosketa seguruak,
deskontu eta guzti!

Zer da Gertuago?

Covid19 birusaren ondorioz ezarritako konfinamenduan negozioa itxi behar izan duten Usurbilgo saltokiei laguntzeko proiektua da Gertuago.

Herritarrek herriko saltokietan erabiltzeko bonuak erosiz, merkatariak lagundu ahal izango diete, aldi berean, herria bizi-araziz. **Merkatariak laguntzea herriari bizitza ematea da.** Usurbilgo merkatariak gertu dituzu, esku-eskura!

Abantailak

Herriko merkatariak laguntzeko sortu da Gertuago, eta, aldi berean, herritarrek onurak jasoko dituzte: erosten duzun bonu bakoitzeko, %20ko deskontua izango duzu. Hori, udalaren kontu.

